



**TORIBIO ALZAGA**  
**(1861-1941)**

Egilea:

**XABIER MENDIGUREN ELIZEGI**

## HAURTZAROKO HIRI KOXKOR MILITARRA

Toribio Alzaga Anabitarte Donostian jaio zen 1861eko apirilaren 16an, 31 de Agosto kaleko 30.ean. Ingeles, portugés eta espainolek 1813an, frantsesen kontrako gerran hiriarri su eman ziotenean Urgull mendiaren kontra dagoen kalea bakarrik gelditu zen zutik. Abuztuaren 31 zen, eta horregatik eman zioten izen hori kaleari Donostia berreraiki zutenean, San Telmo kalea ere esaten zaion arren, izen bereko komentua —gaur egungo museoa— hantxe dagoelako.

Gerra baten eta Donostiaren aipamenarekin hastea ez da kasualitate hutsa; izan ere, Alzagaren bizitza eta lana bere hiriarri guztiz loturik daude, eta gerrek ere, era batera edo bestera, eragin nabarmena izan

zuten bere ibilbide osoan, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Jose Maria Toribio zuen izen osoa, baina, *joxemariarren* artean izen hori zutenak askotxo zirenez nonbait, Toribio deitu zioten beti. Alzaga jaio zenean, gaurko Parte Zaharra besterik ez zen Donostia: harresiz inguratutako gotorlekua, merkatari eta militarrek bizi zireneko hiri txikia, Antigua, Aiete eta Loiola aldera zeuden baserriez gainera; hala ere, Gipuzkoako hiriburu bihurtua

zuten berriki, probintzia oro har karlistaren aurrean bertan liberalak nagusi zirelako edo hiriaren garrantzi estrategikoagatik beharbada, eta, ondorengo hazkundearen iragarle, 1863an bertan bota zituzten hiriko harresiak, lehen hondarleku eta zingira ziren bazterretan gaur Donostiako zentroa dena eraikitzen hasteko.



Toribio Alzaga Anabitarte, euskal antzerkiaren egile emankorrena

2 Donostia alderdi liberalaren aldekoa zela esan dugu, baina ez erabat, ez donostiar guztiak behintzat. 1872an Bigarren Karlistaldia piztu zen; une batean, ia Hego Euskal Herri osoa izan zuten mendean karlistek, zenbait hiri izan ezik, horien artean Donostia. Militar espainolek hartutako hirian gustura ez zeudelako edo kanoi karlisten bonben beldurrez, hainbat donostiarrek ihes egin zuten eta Donibane-Lohizune eta Ziburun babestu, tiro-hotsetik urrun samar. Hara joan zen Alzaga familia ere, gurasoak (Pedro Juan eta Karmen) eta hiru seme-alabak (Toribio, Baleriano eta Soledad). Han ikasi zuen Toribiok batxilergoa eta bertan izan zuen lehen harremana euskal antzerkiarekin.



Marzelino Soroa, euskal antzerki modernoaren lehenengo aita eta Alzagaren bide-erakusle

Euskal teatroak inoiz izan duen mugimendurik zabalena, aberatsena eta emankorrena Donostian gauzatu zen, 1878tik 1936ra arte. Baina Donostiako antzerki-eskola hori jaio, Ziburun jaio zen: gerratik ihesi joandako donostiar haiek umorea soberan zuten, nonbait, eta hainbat denbora-pasa antolatu ohi zituzten, El Trueno deitu zuten elkartean, kaskarinen jostagarri eta herriminaren kontsolagarri. Marzelino Soroa gaztea ere han zen, eta honek asmatu zuen zartzuela antzeko antzerki kantatu bat, euskara eta erdara nahasian zerabilena, *Iriyarena* izenekoa. Hura prestatu zutenen artean zen Toribio, artean mutiko-koxkorra, eta badirudi betiko geratu zitzaiola barrenean sarturik antzerkiaren harra.



Donostia XIX. mendean, aldaketa handien atarian

## FORUEN AMAIERA, PIZKUNDEAREN HASIERA

Karlistaldia amaituta, etxera itzuli ziren alzagatarrak, baita Donibane-Ziburun babesturiko gainerako donostiarrak ere. Donostia ez zen lehengo bera ordea, bai itxura fisikoa, bai giroa aldaturik baitzeuden. Espainiako erregetza borbondarren eskuetan zegoen berriz ere, eta, Frantziako aristokraziak Miarritze hautatu zuen bezala, Alfonso XII.ak eta bere emazte Maria Cristinak Donostia aukeratu zuten opor-leku; errege-erreginen atzetik etorri ziren hainbat jauntxo, noble eta handiki, eta horientzako guztientzako etxe berri eta jauregi bikainak eraiki ziren. Hiriaren itxura guztiz berritu eta edertu zen, baita giroa arrotzu ere, betidaniko donostiar eta euskaldun ziren haientzat batik bat.



Jose Manterola,  
foruen defendatzaile  
eta *Euskal-erria*  
aldizkariaren sortzaile


Aldi berean, gerratea amaituta, Madrilgo gobernuak deuseztatu egin zituen Hego Euskal Herriko foruak. Egundoko zartada izan zen hau euskaldun guztientzat, liberal euskaldunak ere foruzaleak baitziren. Foruen galerak uste ez bezalako ondorioa izan zuen hala ere: lotan bezala zeuden euskal kontzientziak esnatzea, eta iratzartze horretan aitzindaria izan zen Donostia. Jose Manterola bibliotekariak protesta sutua egin zuen foruak deuseztatzean, eta institutuko katedra kendu zioten horregatik; *Euskal-erria* (1880) aldizkaria sortu zuen orduan, batez ere erdaraz idatzia baina euskal gauzei buruzko lehenengoetakoa eta eragin handikoa. Antzeko mugimenduak sortu ziren gainerako euskal probintzietan ere. Lore-joko eta sariketak ugaltzen hasi ziren han-hemen. Donostiaren berezitasunik handiena, aldiz, euskal teatroaren sorrera izan zen, eta esan liteke, sortzeko, huraxe zuela tokirik aukerakoena. Izan ere, antzerkiak, gaur ulertzen dugun moduan, hainbat baldintza eta ezaugarri behar ditu inguruan: antzokiak, egileak, jokalaria, dekoratu eta jantzien prestatzaileak... Horrek guztiak jende-biltze handi samarra eskatzen du, bizimodu urbano bat, hiriburuetatik kanpo nekez topa zitekeena. Iruñea,

Bilbo, Gasteiz edo Baionaren aldean, berriz, Donostiak giro euskaldunagoa zuen, eta horrek egin zuen posible han sortzea euskal teatro modernoa, baita estilo jakin bat ere, eta hor leku nabarmena du Alzagak, nabarmena eta gorena.

4 Ziburun jokaturiko *Iriyarena* errepikatu egin zuten Donostian 1878an, eta dirudienez gaitzeko arrakasta lortu zuen; ez hori bakarrik: euskarazko zatiek estimazio berezia izan zuten nonbait. Obra apala zen *Iriyarena* berez, eta euskarazko zatiek halako funtzio irrigarri-folkloriko bat zuten, baina, aldi berean, huraxe zen Donostiako antzokian emanaldi bat euskaraz egiten zen lehenengo aldia; garai hartan euskara zen donostiar gehienegunero hizkuntza, baina zeregin ofizialetatik guztiz baztertua. Estimazio eta harrera on horrek eraman zuen Soroa euskal antzerki gehiago idaztera, eta mugimendu oso bat eratu zen inguruan: idazle gehiago (Iraola, Ganboa, Gorostidi, Artola, Illarramendi, Uranga...), antzezleak, laguntzaileak... Mugimendu horretan egon zen, hasiera-hasieratik eta era guztietako lanak eginez, Toribio Alzaga.

Zurgina eta kontratista zen Toribioren aita, eta etxeko aroztegirako nahi zuen semea. Toribio, berriz, bere anaia Balerianorekin batean, gusturago aritzen zen Soroaren komedia edo jostirudi haiek prestatzen: *Anton Kaiku*, *Gabon*, *Au ostatuba*... Besterenak prestatzen eta antzezten bakarrik ez: bereak idazten ere laster hasi zen Toribio, eta 1888an ezagutarazi zuen lehenengoa, *Aterako gera!*, lehiaketa batean saritu, argitaratu eta antzeztua. Honen ondotik beste batzuk iritsi ziren, era askotakoak. Aipa dezagun, esaterako, opera zenbaitetako hitzak moldatu zituela: Buenaventura Zapirain musikariak sorturiko *Txanton Piperri* (1899), *Anboto* (1906), *Gli Kornamenti* (1906)... Bada *Txanton Piperri*-ko zati bat, herriarenganako maitasunaren adierazgarri, ezagun bihurtu eta askotan kantatu izan dena:

Euskal Erriko semeak gera,  
ari zor diogu bizia.  
Beraren alde emango degu  
zainetako odol guzia.



## AITA FAMILIAKOA ETA HERRIKO GIZONA

Antzerkilaria den aldetik interesatzen zaigu batez ere Alzaga eta horixe ari gara komentatzen. Haren bizitzak, ordea, edonorenak bezala, baditu beste hainbat eta hainbat alderdi, eta horietako batzuk ezin genitzake aipatu gabe utzi. Famili bizitza, adibidez.

Itxura guztien arabera mutilzahar izateko bidean zegoen Toribio, baina azkenean ezkondu zen, 1901eko apirilaren 16an, berrogei urte betetzen zituen egunean hain zuzen ere, Maria Pilar Fernández Mujikarekin. Madrildarra zen hau, baina jatorria eta familia Aizarnan zituena. Aizarna Urola bailarako herri txiki bat da, Zestoa ingurukoa, eta garrantzi berezia izan zuen Alzagaren antzerkigintzan: izan ere, Maria Pilarren familiak Aizarnan zeukan etxean eman ohi zituzten udako opor-egunak alzagatarrek, eta egun horiek aprobetxatu ohi zituen Toribiok antzerki-lan berriak idazteko, eskuizkribuen amaierako datak adierazten digunez. Bere antzerki-lanetako hainbat gai eta jende-tipo ere Aizarna ingurutik atera ohi zituen. Urtearen gainerakoan Donostiako Parte Zaharreko San Juan kalean bizi ziren, Bretxaren aurrean.



Lore-Jokoan antoloketa-batzordekoak, Hernanin 1909an. Ezkerretik eskuinera, zutik: Joakin M. Baroja, Francisco Lopez Alen, Joxe Artola, Joxe Zapiain, Toribio Alzaga (idazkaria); eserita: Blas Pradere, Alfredo Laffitte eta Migel Salaberria

Bost seme-alaba izan zituzten Toribiok eta Maria Pilarrek, baina horietatik lau gazterik hil ziren. Luis, zaharrena, jaio eta berehala; Mari Paz eta Jose Jabier, hamasei eta hemezortzi urte zituztela, hurrenez hurren; eta Koro 1940an, Toribio bera hil baino urtebete lehenago. Maria Luisa gelditu zen, gazteena eta oraindik ere bizi dena. Lau seme-alaba horiek bere aurrean hiltzen ikustea izan zen arantza mingarriena antzerkigile alaiaren bizialdian.

Bada beste alderdi bat, askorentzat ezezaguna eta, zalantzarik gabe, aipatzea merezi duena. Alzagaren jarduera politikoaz ari naiz. Bigarren Karlistaldia bitartean Lohizune-Ziburun babestu zirela esana dugu; Lapurdin zegoen Arana-Goiri familia ere, izatez

karlistazalea eta Bilbo liberal setiatutik ihes egina. Mutikoa zen Sabino Arana ere, Toribio baino hiru urte gazteagoa, baina ez dugu inongo daturik elkar ezagutu zutenik baieztatzeko. Sabino Aranak Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zuenean 1895ean, azkar asko zabaldu zen abertzaletasunaren sugarra Bizkaian zehar, baina gainerako euskal lurraldeetan nekez eta kostata, hasiera batean oso jende gutxi lotu baitzitzaion dotrina berri hari. Gutxi horietako bat izan zen Toribio Alzaga. Bere antzerkiek ez dute batere kutsu politikorik, eta 1915etik aurrera ez zen nabarmendu bere jarrera politikoetan, jendaurrean bederen, baina aurretik ekintzaile handia izan zen.

Abertzaleek elkarte bat sortu zuten Donostian, Centro Vasco izendatu zutena, eta hango zuzendaritzan zegoen Alzaga. Era berean, parte hartze nabarmena izan zuen xx. mende hasierako bizitza politikoan: hizlari izan ohi zen batzokiak zabaltzean edo alderdiaren kanpainetan, eta hainbat elkarte eta erakundetako partaide ere bai: Centro Católico zeritzanean, EAJren Uri Buru Batzarrean lehendakari, *Gipuzkoarra* egunkariko kontseiluan... Bestalde, etxeko enpresa bere eskuetara iritsi zenetik aroztegi-jabe ere bazenez, Donostiako arotzen buru izan zen eta enpresari-elkarteetako kide.

## IZTUNDE ESKOLAREN SORRERA

Lehen esan dugu, antzerkia sortuko bada bizimodu urbanoa behar duela inguruan: ikusleak, artistak, laguntzaileak, komunikabideak... Sortu ez ezik garatu eta maila jasoago bat lortuko badu, berriz, behar-beharrezkoa du nolabaiteko erakundetze bat ere: babes bat diru aldetik, toki finkoak entseguetarako, aktore berriak trebatzeko eskolak, talde iraunkorrak... Gaur egun normalak iruditzen zaizkigun gauzak baina gure artean aski berriak direnak.



Abelino Barriola, Alzagaren adiskide eta antzerki-lankide; zinegotzi zela, bere eraginez sortu zen Donostiako Iztunde Eskola



Alzagaren bizitzan eta euskal teatro osoaren bilakaeran esanahi bereziko urtea da 1914koa. Lukas Zulaika zinegotzi sozialistak proiektu bat landu zuen Donostian teatro-eskola bat sortzeko; Abelino Barriola zinegotzi jeltzale eta antzerkigileak eraman zuen bururaino, eta hala sortu zen, Donostiako Udalak proposamena onartu ondoren, Euskal Izkera ta Iztunde Eskola edo Academia de Lengua y Declamación Vasca. Erakunde ofiziala izaki, eskola hartako katedrarako lehiaketa antolatu zen eta bi hautagai aurkeztu: Alzaga eta Elizondo. Elizondo azken orduan beldurtuta-edo erretiratu, eta Alzaga aukeratu zuten epaimahaikoek aho batez.

Euskal Iztundearen garrantzia ulertzeko, kontuan hartu behar da ordura arte ez zela Euskal Herri osoan izan inongo antzerki-eskolarik, eta Toribio Alzaga izan zela, itxura denez, teatrotik eta teatrorako bizi izandako lehenengo profesionala. Funtzionarioaren irudi txar bat izan ohi dugu askotan, alferrarena alegia —eta ez beti arrazoirik gabe— baina, Alzagaren lanei une labur batez bada ere erreparatuta, argi ikusten da ez zuela inongo zerikusirik irudi horrekin, buru-bihotzez zegoela antzerkiari emana. 1915ean Iztunde Eskola abiatu



Eskuz prestatzen zituen Alzagak Iztunde Eskolako aktoreentzako kopiak. Hona, erakusgarri gisa, haren bi itzulpenetako azalak: *Pasaiko batelzaia* eta *Irritza*, 1923-24 urteetakoak



zenetik, euskal antzerkiak ordura arte ezagutu gabeko loraldi eta garapena lortu zituen, eta horren barruan asko eta handiak izan ziren Alzagak egindako lanak. Obra berrien sorrera da gehien ezagutzen duguna, baina horrez gain askotarikoak ziren don Toribioren eginkizunak eskola hartan, oro har —erakundearen izena bezala: izkera ta iztunde— bitan bana litezkeenak: hizkuntzaren irakaskuntza eta antzezpenen prestakuntza. Hau dena, baina, xehekiago ikusiko dugu hurrengo atalean.

## HELDUARO LANTSUA

8

Udalaren lanpostu hura hartu zuenez geroztik badirudi alde batera utzi zituela bere aroztegiko lanak, nahiago baitzuen nonbait ametsezko eraikuntzak sortu, zurezko teilatuak konpondu baino. Politikazko zereginik ere ez diogu ezagutu ordutik aurrera: beharbada, postu instituzional bat betetzen zuen aldetik, egokiago irudituko zitzaion bere usteak eta jarrerak maila pribatuan uztea. Nolanahi ere, ez ziren gutxi ez, Toribio Alzagak hartu zituen lanak. Aipa ditzagun ezagunenak.

Batetik, esan dugun legez, euskarazko eskolak ematen zituen, helduentzat. Honetan ere aurrekari izan zuen Marzelino Soroa, bere etxean irakasten baitzuen honek euskara, eta horren froga dugu prentsan jarritako iragarkiren bat. Gaurko egunean zaila da imajinatzen nolakoak ote ziren orduko eskola haiek. Kontuan eduki behar dugu ez zegoela ez euskaltegirik, ez gramatika arauturik, ez ikasteko metodorik, eta garai hartan oso-oso bakana zela euskaldun berriak sortzea (txikitik ikasten zutenak alde batera utzita, noski). Alzagak berak ez digu utzi bere irakaskuntzako jarduera honen erakusgarrikerik, baina bai haren ikasle izandako batek: izan ere, Raimundo Herrero Tornadijo delako gizon batek liburu hauxe idatzi zuen



Bere taldeari guztiz loturik ibili zen Toribio, adinean alde handia izan arren. Argazkia Lekunberrin atera zen, 1923an

Alzaga hil eta gero: *Estudio elemental de la gramática vasca*, eta izenburuaren azpiko ohar argigarri hau: «según las lecciones explicadas por el Profesor de Lengua y Declamación Vasca, D. Toribio de Alzaga (q.e.g.e.) por un su discípulo».

Bestetik, aurreratu dugun moduan, antzezpenak prestatzeko lana zegoen, Alzagaren gogokoena seguruki asko. Eskolaren betebeharra urtean hiru emanaldi prestatzea zen, Donostiako hiru jai handietarako: Santo Tomas eguna, San Sebastian eta Inauterietako astelehena. Hiru horiek egiten ziren, noski, baina Alzagaren eta Iztundearen lana harantzago zihoan, Donostian ez ezik beste hainbat herritan ere eskaintzen baitzituzten antzerki-emankizunak: Tolosa, Irun, Errenteria, Bergara, Oñati, Lekeitio, Gernika, Bilbo, Hendaia... Antzerki-zaletasuna pizteko eta han-hemen talde berriak sortzeko ere funtsezkoa izan zen donostiarren eredu.

Antzezlan bat taularatzeko era askotako lanak egin behar ziren, eta denetan aritzen zen Toribio: obra bera idatzi, edo bestela egokitu; gero, berriz, jokalaria bakoitzak zer eta noiz esan behar zuen, koaderno banatan idazten zuen eskuz, kaligrafia txukun eta dotorez, garai hartan ez baitzen fotokopiagailurik; entseguak ere berak zuzentzen zituen eta aktoreei irakatsi

(garai hartako film edo bideorik ez dugu, baina guztiz famatuak eta txalotuak izan ziren haren eskuetatik pasatako aktoreak: Beorlegi, Egileor, Ugartetxea...); horrez gain, dekoratuak eta bestelako xehetasun guztiak ere prest eduki behar ziren emanaldirako: esate baterako, jantziak josten-eta Toribioren emazte eta alabak aritzen omen ziren.

Ez ziren hor amaitzen Alzagaren zereginak. Gizon heldua zela iritsi zen Iztundeko kargu horretara (54 urte), baina buruz gazte bezain gartsu zegoen oraindik, bizitza osoan horrexen zain egon balitz bezala, helduaro benetan lantsua eta lanpetua izan baitzuen harrez geroztik. Antzerki-lanak idaztea ez zen berez bere eginbeharra, eta sortu ere sortuak zituen batzuk aurretik ere, baina benetako aldi emankorra orduantxe hasi zen, hurrengo 20 urteetan, batz besterik, urteko obra berri bat idatzi baitzuen. Ez beti erritmo berdinean, ordea: gehien-gehienak 1920-1930 hamarraldian sortuak dira. Eta ohargarria da ikustea nola 60 urte bete eta gero eman zituen Toribiok bere onenak, jendearen batz besteko bizialdia gaur baino askoz laburragoa zen garai batean gainera. Lehen ere esan dugun moduan, Aizarnako udaldiak baliatu ohi zituen gehienbat antzezlan berriok idazteko.



1935ean Donostian ospaturiko lehen Bertsolari Eguneko epaimahaia. Ezkerretik eskuinera: Joxe Zubimendi, Aitzol, Alzaga, Joxe Olaizola eta Manuel Lekuona

Horrez gain, Donostiako kultur bizitzan parte hartze etengabea izan zuen. Hiriko lore-jokoen batzordekoa izan baitzen betidanik, literatur sariak eta antzekoak antolatuz. Donostian eratu ohi ziren bertso-txapelketa guztietan ere ohiko epaimahaikoa izaten zen. Lan hauek guztiak gutxi balira bezala, aldi batean *Euskal-erria* aldizkariaren zuzendari ere izan zen (urteetan zehar hainbat artikulua argitaratzeaz gain, 75 bat, laburrak eta irrigarriak gehien-gehienak). Aurreko

zuzendari Francisco Lopez Alen hiltzean berak hartu zuen ardura 1911n, eta hortxe iraun zuen 1918ra arte, betiko itxi baitzen orduan Manterolak 1880an sorturiko agerkaria. Ixte hau Alzagari leporatzea baino egokiago eta zehatzago da garaien aldaketa ikustea: aldizkari berri asko sortuak ziren, bai kulturazkoak bai politikoak, eta *Euskal-erria*-ren estiloa apur bat zaharkiturik zegoen aspaldidanik, XIX. mendeko jende eta ikuspegiei lotuegia edo.

## OMENALDIAK ETA BELAUNALDI BERRIAK

Oraindik ere urte luzeetan jarraitu zuen Alzagak lanean. Lan hori guztia eskertzeko, omenaldi bero eta hunkigarria eskaini zioten 1930eko abenduan, Santo Tomas egunean, bazkari, bertso-saio, antzerki eta guzti. Hainbat kronika ere plazaratu ziren orduko prentsan, eta, denen artean, Orixek idatzitako artikulu-zati hau aukeratu dugu, omenduaren garrantzia eta ekarpena ederki laburbiltzen dituelakoan: «Euskal-teatroa Alzaga'k oial-zapietatik atera digula esan diteke; oiñez ere ederki erakutsi dio, ta bide sendoan yarri; kozkortuxe ere egin dala esan genezake, ta edozein erritako teatroaren maillera laister igoko dan uste ona degu».

Orixeren testuan argi ikusten da Alzagarenganako aitortza, baina, aldi berean, joera eta idazle berriak badatozelako zantzua ere igartzen da. Ezin zen bestela izan! Izan ere, Alzagak ia-ia 70 urte zituen, eta, bestalde, euskaltzale-belaunaldi berri bat zetorren, adorez eta kemenez betea, kulturgintza eta herrigintza errotik astintzera: Aitzol, Lizardi... Belaunaldi horretan bada izen bat, teatroari bete-betean lotua: Antonio Maria Labaien (Tolosa, 1898). Gazterik hasi zen Labaien antzerkigintzan eta era askotako lanak egin zituen berak ere: horien artean, obrak idazteaz gain, aldizkari bat, *Antzerti*, herriz herri sortzen ari ziren antzerki-talde gero eta ugariagoei lan berriak, berri interesgarriak eta formazioa eskaintzeko asmoz. Labaien ez baina

11



Lehen Antzerki Egunaren ospakizuna, Alzagaren itzalean garaiko euskal kulturako izen garrantzitsuak bildu zituena: Leizaola, Arzelus, Lopez Mendizabal, Labaien, Barriola, Olaizola eta Aitzol, besteak beste


Alzaga gogoratzeko tokia da hau, ordea. Labaienek berak ere goraipatzen du gure protagonista, eta ekar dezadan hona haren idatzia: «Alzaga jauna da Euskal-Antzerkia'ri eutsi diona, eragillea ta pizkortu duna, nekatzeke ta laguntza gutxi izan arren».

Labaienen esaldi horretan badira hitz deigarri batzuk: «laguntza gutxi izan arren». Esan ez dugu ba —galdetuko digu irakurleak— aurrerapauso handia izan zela 1914-1915ean Euskal Iztundea sortzea? Hala izan zen bai, baina lehen pauso hark beste batzuk eskatuko zituzkeen atzetik, eta ez zen horrelakorik iritsi. Omenaldi-egun horietan, Alzaga elkarrizketatzera joan zen kazetari bat haren lantokira, Garibai kalean Iztundeak zeukan ganbarara, eta ondoren halaxe esan zuen kazetariak: horrenbeste afari eta omen eskaini ordez, hobe zutela berogailu bat emango baliote, teilatupe hartako hotza zertxobait goxatzeko.

## AMAIERA TRISTEA


la bizialdi osoa jendea barrez jartzen igaro zuen hark, goibel eta zoritxarrekoak izan zituen azken urteak: ez zahartzaroaren gaitzengatik bakarrik, baita bere herriaren patuagatik eta bizitza osoko lanaren akabera beltzagatik ere. Lantxo honen hasieran kontatu dugunez, gerra batek eman zion hasiera euskal teatro modernoaren mugimenduari; beste gerra batek ekarri zion akabua, handik hirurogei urtera: 1936ko matxinada faxistak, hain zuzen ere.

Uztailaren 18an hasi zen gerra, ezaguna den bezala. Donostian ere saiatu ziren Loiolako tropakoak hiria hartzen, baina herriaren erantzunak, eta batik bat anarkisten erresistentzia bipilak, galarazi egin zien. Bi hilabete eskasera, ordea, irailaren 13an zehazki, Irun hartu eta gero sartu ziren frankistak Donostian. Ez dugu berrituko hemen egun haietako historia, bere izu eta fusilamenduen kate luzearekin. Azal dezagun soil-soilik Toribio Alzagari gertatua.




Lanean aritua zen ordura arte Alzaga, 75 urteak beteak izan arren. Frankistek euskal kulturazko ezer eraman ezin, nonbait, eta dimitiarazi egin zioten bere irakasle-postutik; Iztunde Eskola bera, itxi. Hori nahikoa ez eta atxilotu egin zuten gau batean Toribio Alzaga, haren kontrako inongo kargurik ez izan arren, beste asko bezala. Gaur egun Teniseko ibiltokia eta Ondarretako hondartzaren bazterra dauden lekuan zegoen orduan Donostian kartzela. Ondarretako presondegi ospel eta heze hartara eraman zuten beraz agurea, asma kardiakoaren gaitza zuena, eta han eduki zuten, harik eta familiaren bitartekari eta jestioek (Jose Maria Lojendio euskal idazle frankistarekin, besteak beste) askatzea lortu zuten arte.

Hortik aurrera aienatu egiten da Alzaga bizitza publikotik, euskal kultura desagertarazia zegoen modu berean. Bere gaixotasunak aurrera jarraitzen zuen bien bitartean. 1941eko maiatzean larritu zitzaizkion itoaldiak. Bere iloba Jabier Villar medikuak kontu egiten zion eta, tabakoa debekatua zion arren, hilaren 26an hala esan omen zion: «Osaba Toribio, zigarro bat egin behar diot». Huraxe izan zuen azken zigarroa. Biharamunean hil zen, 1941eko maiatzaren 27an, San Juan kaleko bere etxean, 80 urte zituela.



Pertsonaia kuttuna bihurtu zen Alzaga. *Kaiku* astekari irritsuan atera zen karikatura hau, *Andre Joxepa Tronpeta* obrako sorgin-giroaz inguratutik



## ZENBAKIEN TXAPELDUN

Zenbat antzerki-lan idatzi zituen Toribio Alzagak? Ezin eman dezakegu erantzun ziur eta erabatekorik, baina bai esan gutxi gorabehera hogeita hamarren bat obra idatzi zituela, aurreko euskal antzerkien moldaketa pareta eta beste bizpahiru itzulpen barnean hartuta. Horrenbestez, bere-bereak hogeita bosten bat sortu zituela esan daiteke.

Zenbakien ziurtasun ezak baditu bere arrazoiak; izan ere, Alzagaren

antzerki asko, gehienak, ez ziren inoiz argitaratu, ez liburu gisa, ez aldizkarietan. Lan-tresna ziren, Iztunde Eskolako aktoreekin ikuskizuna prestatzeko gidoiak, eta garai hartan ez zegoen aski azpiegiturarik sortzen ziren antzerki-lan guztiak argitaratu ahal izateko (bidenabar esanda, gaur ia okerrago ez ote gauden ematen du, gutxiago idazten baita antzerkia euskaraz eta idazten den gutxi hori argitara gabe eta antzeztu gabe geratzen baita gehienetan). Dena dela, Alzagak idatzitako antzerki horietako gehienak —eta bere ardurapean antzeztu ziren besteak ere bai— Iztundeko artxiboan gordeta egon dira, don Toribioren kaligrafia dotorea ageri duten eskuizkribuetan. Urteetan zehar toki batetik bestera ibili ondoren —Iztundea aspaldi samar itxi zen, gero Antzerti-n egon ziren, baina, gorabehera askoren ondotik, erakunde hori ere desagertu zen— gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiko liburutegian daude gorderik. Ez denak, ordea. Badira obra batzuk, zerrendetan aipaturik ikusi bai baina inon aurkitu ez ditugunak, hala nola *Zalaparta*, *Gizon ona*, *Oleskari berriya*; *Gli kornamenti* deritzan opera bat ere bai, *Pasai'ko batelzaia* itzulpena eta *Eleizatxoko ardazlea*, izatez



Lan zabal eta oparoa burutu zuen Alzagak. Irudian, haren eskutik sorturiko lau antzerki: *Zanpantzar*, *Etxietan*, *Biozberak*, *Burrentziya*



Gorostidirena eta Alzagak moldatua. Litekeena da, zoritxarrez, horietakoren bat betiko galdua izatea; hala ez bada, mesederako litzateke Alzagaren gainerako eskuizkribuekin batera jasotzea, gure kultur ondarea zaintzeko eta biharko ikerlariek aztertu ahal izateko.

Guk ere aztertuko ditugu Alzagaren antzerkiak, laburki bada ere, baina aurretik aipa ditzagun beste zenbaki batzuk, haren lanaren neurriaz eta ekarriaz hobeto jabetzeko. Iztundearen hogeitun urte luzeetan, batzuetan beste urteko dozena bat obra jarri zituzten taula gainean, batzuk luzeak, besteak laburrak. Urtetik urtera ez zituzten denak aldatzen, noski: obra gehienak errepertoriokoak ziren, hots, behin ikasiz gero hurrengo urteetan ere eman ohi zituztenak, baina urtero-urtero izaten ziren bizpahiru obra berri, errepertorioa aberastera pasatzen zirenak. Obra horiek zenbat aldiz ematen zituzten ez dago zehatz esaterik, herriz herriko emanaldi guztien berri jakin beharko bailitzateke horretarako.

Hori guztia ikusita, aise baieztatu liteke Toribio Alzaga izan zela garai hartan euskal antzerkiaren bizkarrezurra, inork baino antzerki gehiago idatzi baitzituen, inork baino obra gehiago zuzendu, inork baino jokalaririk gehiago



Euskal Iztundeko antzeztaldea Lekarozen

trebatu, inork baino emanaldi gehiago eskaini; geroztik ere, ez dakit inork hurreratu ote den kopuru horietara: Piarres Larzabal neurri batean, eta Antonio Labaienek ere gaituzko zukeen beharbada, gerrak bere garai emankorra eten ez balu. Nolanahi ere, Alzaga ez da zenbakien txapeldun hutsa: kalitatean ere —mugak muga— goraldi nabarmena ezarri zion euskal antzerkiari, eta bere obretan suma liteke hobekuntza-nahi eta anbizio hori.

Obra guztiak nahas-mahasean aztertu ezinik, generoka bilduko ditugu, ondoko sail hauek eginik: bakarrizketa eta elkarrizketak, ekitaldi bakarrekoak, operak eta ohitura-antzerkiak eta antzerki luzeak.

## BAKARRIZKETA ETA ELKARRIZKETAK

Bakarrizketak oso ugari ziren Donostiako teatroan, eta Soroagandik hasita gehien landu zen estiloetako bat dela esan liteke. Mozkor, baserritar eta xelebreen barregarrikeriak erakutsi ohi dituzte gehienetan, eta izugarritzko harrera ona omen zuten ikusleen artean, arrakasta honek maila handiagoko antzerkia nahi zutenak (Abelino Barriola adibidez) haserretzen bazituen ere. Era honetako hiru lan sortu zituen Alzagak: *Arpuxa kalian* (1922), *Urdallekua* (1925) eta *Txingurri* (1935). Laburrak izaten dira beti, eta beren funtzioa ondo ulertzeko orduko antzerki-jaialdiak nolakoak ziren jakitea komeni da: ohikoa izaten zen hiru obra eskaintzea, horietako bi luzera normalekoak, eta beste bat labur-laburra eta arina tartean, edo jaialdiaren hasieran bestela: hor zuen bere tokia bakarrizketak.

«Elkarrizketa» izenez bataiatu zituen Alzagak zenbait obra. Elkarrizketa, solasa, berbeta edo berriketa ezinbesteko osagaia izan ohi du antzerkiak, baina deitura horrekin antzerki-mota berezi bat izendatzen du egileak: bi lagun arteko solas bizi-biziak, laburrak, arinak eta umoretsuak, ekintzarik gabeak eta

dekoratu eta antzekorik behar ez dutenak. Hauen zeregina ere bakarrizketaren berdina zen, beste bi antzerkiren arteko denbora-pasa atsegin bat eskaintzea. Horrelako bi elkarrizketa egin zituen Alzagak, bietan ere bina neskatxa jarririk solaskide: *Axentxi ta Kontxexi* (1914), *Etxietan* (1918); hirugarren bat ere sortu zuen, *Biyak bat* (1934), desberdin eta atipiko samarra. Nonbait sartu behar-eta, sail honetan koka genezake haurrentzako txotxongilo-lan bat, *Kaxka gogorra* (1930), lau panpina erratzarekin elkar joka ari direna.



Bernaiñoren larriyak, Iztunde Eskola eratu eta berehala, 1915ean sorturiko lana

## EKITALDI BAKARREKO ANTZERKIAK

Era honetako izan zen Alzagaren lehen antzerkitzat hartu duguna: *Aterako gera!* (1888); zehatzagoak izanda eta egiaren amoreagatik esan beharko dugu Toribioren lehen-lehen antzerkia beste bat izan zela: *Martin Tiñacu* (1886), gaztelaniaz idatzia eta erdaraz gaizki egiten duen protagonista barregarria duena. Hori alde batera utzita, ekitaldi bakarreko bost antzerki idatzi zituen: goian aipatu dugun *Aterako gera!* eta beste lau: *Bernaiñoren larriyak* (1915), *Txibiribiri* (1918), *Biozberak* (1920) eta *Burruntziya* (1926).

*Aterako gera!* da, esan dugun moduan, Alzagaren lehen euskal lana. Denboran tarte handia dago besteekin, eta osterantzean ere bai. Marzelino Soroa maisuari eskaini zion, eta bertan erakutsi bikain ikasia zuela haren artea eta antzea xeblebrekeriak agertzeko, bai eta hizkera bizi, adierazkor eta «koxkeroa» ere. Geroko lanen aldean euskara zabar samarra duela esan behar, hala ere: esate baterako, z gehienak s egiten ditu, eta ts asko tz. Hona hemen adibide bat: «Bañon, askenian, subek negar asko egiñ-atikan erostunak berdindu biar isaten diskik suben eskasiyak».

Egituraren aldetik ere, lehenbiziko lan hau herren samar gelditzen dela esan behar; hizketa da ia sostengu bakarra, ekintzaren euskarri dramatiko nagusia. Bestalde, gizasemeak eta emakumezkoak antzerkian ez nahasteko ohitura zeukaten garai hartan, eta horri jarraituz gizonaekoa besterik ez daude antzerki honetan. Sagardotegi batean dago girotua, eta arlotekeria ugariren artean jendearen diru-estuasuna ere adierazten da, nolabaiteko mezu soziala emanez.

Beste laurak modernoagoak dira, biribilagoak: badute korapilo bat, egoera nahastu eta gero askatzen duena. Gertaera xumea da beti, baina haria ondo lotua eta erritmo azkarrez kontatua. Euskara ere askoz zuzenagoa, ez baitzen alferrik Alzaga irakasle bihurtu. Honen guztiaren adibidetzat *Burruntziya* har dezakegu, Alzagaren lan onenetakoa, onena agian. Pertsonaiak ondo eta azkar marrazturik daude; hemen ez dago, eleberririk batean bezala, protagonisten nortasuna eta psikologia arretaz lantzerik, eta, horrenbestez, pertsonaiak estereotipatu egiten ditu, tipo bihurtzen: ezaugarri jakin eta markatuak dituzte, obra batean baino gehiagotan azaltzen dira antzekoak, erraz identifikatzen ditugu eta beti gertatzen dira barregarri. Obra




Burruntziya-ren azala.  
Hauxe izan liteke  
Alzagaren lanik  
adierazgarri eta onenetako  
bat

honetakoak ditugu, adibidez, Joxe Joakin kaskailu ahobero baina andrearen beldur bizi dena, Talo alproja oihularia, Mañaxi etxekoandre matxarda, diruzale, agintzailea... Hizkuntza zuzenagoa dela esan dugu lehen, baina ez hori bakarrik: txukuna ez ezik, bizi-bizia ere bada, solasari txinpartak eta zukua ateratzen dizkiona. Zoragarriak dira lan honetan, esate batera, Joxe Joakinen irainak, edo Taloren losintxak: *katramillosa*, *mamuxel*, *zirrikituna*, *mazuztxori*, *txirripixtiña*, *pillinpustrera*, *makarrosiña*...

Ekitaldi bakarreko obra hauek laburrak dira denak ere, ordu erdi baino gutxiago iraun ohi dutenak; tankera honetakoak ziren garaiko euskal teatroan ugarietak, eta, gehien lantzen zen generoa zenez gero, onenak ere bai.

## OPERAK ETA OHITURA-ANTZERKIAK

XIX. mendearen amaieran eta xx.aren hasieran gailen zebilen opera Europa osoan, eta baita Euskal Herrian ere. Erdaraz euskaraz baino gehiago, eta Bilbon Donostian baino maizago. Dena dela, euskarazkoak ere egin ziren, eta hauetako batzuetan izan zuen Alzagak zerikusirik. Hain zuzen ere, Buenaventura Zapirain musikariak konposaturiko *Txanton Piperri* (1899) eta *Anboto* (1906) operetako hitzak berak idatzi zituen, eta bestelako xehetasunik ezagutzen ez diogun *Gli Kornamenti* izeneko batekoak ere bai.



Donostian ez ezik, han-hemen ematen zituen Iztunde Eskolak bere ikuskizunak. Argazkia Eibarren atera zen, 1926ko abenduan, *Ramuntxo* antzeztera joanda

Bestalde, bi antzerki guztiz berezi idatzi zituen, ohitura-antzerki deitu ditudanak: *San Tomaseko feriya* (1892) eta *Zanpantzar* (1924). Pertsonaia batzuen ingurukoa ez baizik eta koralak dira obra bi hauek: hots, protagonista zehatzik gabe, jende asko biltzen da taula gainean, ekintza franko garatzen bertan; ez dute argumentu handirik ere, hari mehe bat gehienik, baina ez da hori axola duena: Donostiako bi jai handitan (San Tomas edo Santo Tomas egunean batetik, Inauterietako astelehenean bestetik) girotutako antzerki kostunbristak dira, barregarriak, laburrak, festa-girokoak, kantuzaleak, txantxagileak...

Gogoan izan behar da, halaber, bi egun hauek eta San Sebastian eguna zirela Donostiarentzat bezala bertako antzerkiarentzat seinalatuak, eta horietan beti izaten zela funtzioa.



*Bost urtian* obraren antzezpene bateko argazkia

## ANTZERKI LUZEAK

Ekitaldi bat baino gehiago dutenak sartu ditugu antzerki luzeen sail honetan. Bi ekitaldiko bi obra burutu zituen: *Bost urtian* (1922) eta *Amantxi* (1923). Gerokoak geroko utzita, erants dezagun zer edo zer bi hauetaz, ezaugarri interesgarriak dituzte eta.

*Bost urtian* Euskalzalaleak elkarteak argitaratu zuen 1929an, antzerki-sail bati hasiera emanez. Erraza du argumentua eta sinplea egitura: senar-emazteak bidaian doaz; abiatu aurretik hainbat jenderekin hitz egiten dute, eta bost urteren buruan itzulitakoan lagun horietan bilduko dira ostera. Bost urte horietan, 1914-1920 inguruan, zer-nolako aldaketak gertatu diren ikusiko dugu, eta barregarri gertatuko zaizkigu. Errealitatean ere, aldaketa izugarriak izan ziren urte horietan, bai politikan, bai ekonomian, eta horien berri jasoko dugu, teatroa ia beti izaten baita, nahita edo nahi gabe, bere garaiaren eta gizartearen ispilu. Hemen, adibidez, protagonista positiboa, Pantxo, Ameriketara aberastutakoa da, eta Lukax da gaiztoa, hemen bertan azpikerien bitartez aberastu den korredore edo artekaria.



Amantxi-ren eskuizkribua, Alzagaren marrazkirako zaletasuna erakusten duena

*Amantxi*-k berezitasun nabarmen bat du: xvi. mendean girotuta dagoela. Honek, dirudien baino garrantzi handiagoa du: jantzi eta dekoratu landuagoak eskatzeaz gain, goragoko asmoak adierazten ditu, maila handiagoko antzerkia egiteko borondatea. Ez da beraz harritzekoa, Alzagak berak bere obra onenen artekotzat jotzea *Amantxi* hau, *Bost urtian* eta *Irritza*-rekin batean.

Luzeagoetan, hauexek dira hiru ekitaldikoak: *Tantarrantan* (1923), *Neskazar* (1924), *Mutilzar* (1925), *Osaba* (1926), *Babalora* (1927).

Hauek baino luzeagoa, bakarra sortu zuen —itzulpenak alde batera utzita—, *Andre Joxepa Tronpeta* (1920): sorgin-giroko obra nahasi, konplexua da, jokalaria, musikari eta dekoratu asko

eskatzen duena, handinahia; emaitza antzertua epaitu ezin badugu ere, eskuizkribuko gidoian ondo burutu gabea iruditu zaigu guri. Dena dela, hau alde batera utzi eta hel diezaiegun besteei.

Ia denak —*Osaba* salbu— irri-antzerkiak dira, pertsonaia bitxi eta barregarriak dituztenak. Izenburuak ikuste hutsarekin kontura gaitzke neskazarrek eta mutilzarrek garrantzi berezia hartzen dutela, oso gustuko gaia omen zuen hori Alzagak, eta gaur egun ere arrakasta duena, gauzak gehiegi aldatzen ez diren seinale; horrekin batera ikusi eta entzungo ditugu totelak beren hizketa bereziarekin, loterian aberastu nahi duenaren gainean barre egin ahal izango dugu... Horrelakoak dira Alzagaren jostirudien ezaugarri tipikoak.

*Osaba* desberdina dela esan dugu, eta antzerki luze hauen artean onentxoena edo interesgarriena behintzat bera dela erantsiko genuke. Berezitasunik aipagarriena, hiriko gizartean kokatuta eta jende aberatsaren mailan girotuta egotea da. Badirudi horrek ez lukeela zertan berezia izan, kontuan edukita Donostia hiri-hiria zela, eta guztiz hiritarrak bai Alzaga bai bere taldeko aktoreak. Baina, egiazki, Donostian idatzi eta jokatzeko ziren euskal antzerki gehienak baserri-girokoak ziren, edo



Mutilzar antzezten: egilearen eta ikusleen gogoko gaia izan ohi zen mutilzabar-neskazabarrena

bestela herri txikietan kokatuak eta jende xehe eta barregarria agertzen zutenak. Istorioaren sinesgarritasunari lagunduko zion baliabide horrek, baina aldi berean euskararen egoera diglosikoa salatzen digu, aski era gordinean.

Goi mailako jendeak eta giroak erakustea egiatzko jauzi bat izan zen, eta aurrerabide hau behar-beharrezkoa zuten bai euskal teatroak, bai euskal gizarteak berak ere. Antzerkiak, artegintza oso eta sendo bat egingo bada komediak ez ezik lan serio eta handinahiagoak ere behar direlako; eta gizarteak, une hartan euskaltzaleak eta oro har abertzaleak gero eta pisu handiagoa hartzen ari zirelako Gipuzkoan.

Giroa jasotze honetan, Abelino Barriola zinegotzi jeltzale eta antzerkilaria dugu Alzagaren lagun eta aitzindaria, 1915ean *Gai dagonaren indarra* idatzi zuenetik (obra honen estreinaldiarekin hasi zuen gainera Iztunde Eskolak bere ibilbidea). Gerora ere, *Osaba*-ko gaia hartu eta beste antzerki bat idatziko zuen Barriolak: *Goi argi*.

Giroaren jasotzeak zenbait arazo zekarren berarekin, batez ere euskararena. Garai hartako Donostian, gero eta erdaldun huts gehiago etortzeaz gainera, euskara neskame-morroiekin edo baserritarrekin hitz egiteko hizkuntza bihurtua zen euskaldun kaletar gehienentzat, kontu xeheez aritzeko beti ere, zeregin

inportanteagoetarako erdara baitzerabilten (euskal antzerkien emanaldietako esku-programak ere erdaraz egin ohi ziren). Aipatzen ari garen obra honetan hautsi egiten da joera hori, aberatsak eta aristokratik euskaraz ari baitira beren artean, eta ez dugu espanturik egin behar orduko ikusleei harrigarri gertatu baldin bazitzairen: antzeko zerbait gertatu izan da berrikiago, ETB 1983tik aurrera filmak eta telesailak ematen hasi zenean: «beltzak» euskaraz entzutea harrigarria omen zen.


## ALZAGAREN BALIOA GAUR

Alzagaren antzerkiak zein diren ikusten aritu gara, bai eta horiei buruzko zenbait iruzkin egiten ere. Hala ere, iritzi orokorrako emateko tenorea heldu da. Zer nolako idazlea genuen? Zein ziren bere bertute eta akatsak? Galdera hauei erantzuten hasteko, ekar ditzagun hona Koldo Mitxelenaren hitzak:

Garai batean euskal teatroa landu zutenen artean, uste dudanez, gailen eta nabarmen agertzen zaigu Alzaga, bere-berea zuen sailean behintzat. Komediaz ari naiz, esku trebea baitzuen, era berri ausartetara jo gabe, jendeari parre eragiteko. Zorrotza zen pertsonak eta pertsonen xebrekeriak begiz jotzeko, bazekien korapilo politikak lotzen eta, lotzen ez ezik, baita lotu ahala askatzen ere, ez ikuslearen buru-haustetarako, atseginerako baizik.



Osaba-ren antzezpeneko irudi bat. Baserritarkeriatik gorago jotzeko nahia nabari da bertan



Andre Joxepa Tronpeta, Alzagak bere irudimena aske ulzi zueneko «sorgin-ipuina»





Toribio Alzaga, antzezataldeko emakumeez inguratua, Lapurdin 1924an

Begi-erne eta bizkorra zen Mitxelena kritika-lanetan, baita barkabera ere tarteka, euskaraz hain gutxi egonik dena onerako zen garaian behintzat, eta garai zahar hari dagokio komentario hau. Komedian maisu zela esaten digu, usadiozko komedia moldean; batez ere komedia laburretan, erantsiko nuke nik. Korapiloak eta xelebrekeriak zituen lanabes nagusi, eta pertsonaien elkarrizketa biziak horiekin batean.

Komediaz harantzago joan nahi duenean edo antzerki luze osatuagoak egin nahi dituenen hasten dira Alzagaren arazoak, orduan ageri baitira bere mugak.

Toribio Alzaga, bere garaian, euskal teatroko errege izan zela esan dezakegu. Bera zen egile emankorrena eta antzeztuena, ez bakarrik Iztundearen emanaldi ugarietan, baita Errepublikaren garaian (1931-1936) euskal herri askotan sortu ziren taldeen eskutik ere. Mugimendu hura 36ko gerrak txikitu zuela esana dugu. Frankismoaren lehen eraso bortitzen eta debeku gogorren ondoren, zirrikitu txiki bat utzi zitzaion euskal kulturari; zirrikitu hori baliatuta, poliki-poliki hasi ziren berriz ere euskal antzerkiak, eta Euskal Iztundearen bigarren aroa abiatu zen 1953an Maria Dolores Agirreren zuzendaritzapean. Don Toribioren ikasle izana zen Agirre, eta aurreko maisuaren lorratzak zenbateraino irauten zuen konturatzeko, aski bedi esatea lehen sei urteetan beti eman zutela Alzagaren antzerkiren bat; horiez gain, Soroa eta Barriolaren lan bana. Garaia, giroa, gizartea bera bestelakoak ziren ordea, eta frankismoari aurre egin nahi zioten gazteek bestelako bideak behar zituzten, bestelako kultura, bestelako antzerkia.

Ez da harritzekoa, beraz, 1960tik aurrera Alzaga zeharo desagertzea. Antonio Zavalak, liburu zaharrak berreskuratzeko bere lanean, Auspoa bilduman kaleratu zituen haren komedia onenetako batzuk eta *Ramuntxo* itzulpena, eta argitalpen haiei esker irakurri eta ezagutu ahal izan genuen askok Toribio Alzaga. Hala ere, irudi luke antigoaleko gauza bat dela, gaur egungo teatorako ez interesik ez baliorik ez duena. Guk ordea, Alzagaren lanak baliagarriak izan daitezkeela uste dugu. Elkarrizketaren teknikan batez ere, atzerriko ereduera makurtuegi gauden sasoi honetan, Alzagaren azterketa oso komenigarria izan daiteke antzerki-idazle eta aktoreentzat. Ikasteko bakarrik ez, antzezteko ere izan dezake interesik, zergatik ez?



Iragan garaietako alaitasuna ez ezik, zer ikasia ere eskaintzen digu oraindik Alzagak

Bada beste alderdi on bat azpimarratzeko modukoa. Askotan aipatzen da, gaitzespen-kutsuz, «Donostiako euskara», hizkuntza txar, eskas edo gatz gabea balitz bezala. Egia izan daiteke, gaur egun, hiri handietakoa ez dela oro har euskara ereduizkoena, inguruan erdarak toki eta indar handiagoak dituelako edo. Hala ere, Alzagaren antzerkietan argi ikus eta adi dezakegu hizkera guztiz bizi, bitxi, adierazkor eta piperduna, garai bateko donostiarren euskara ederraren adibide. Baserria eta euskara lotzen dituztenen aurrean esan beharrekoa da, euskararen geroa kale artean jokatzeko dela gaur, asfalto artean entzuten dela gehienbat, eta bide horretatik jarraituko duela, gero eta gehiago. Gaurko euskaldun hiritarrak, hortaz, badu zer ikusia eta zer ikasia Toribio Alzagarekin.

Euskal teatroa biziko bada, aurrera begiratu behar du eta gauza berriak egin. Baina gauza berriak egin nahi dituen herriak —teatroak— bere iragana ere ezagutu behar du eta handik ikasi. Atzera begiratu eta Alzagaren algara lasaiarekin topatzea osasungarri eta ongarri izango zaigu, Euskal Herriak XXI. mendean behar duen teatroa denon artean bilatu eta asmatzeko.

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Koldo Mitxelena Kulturunea*
- *José Luis Villar argazkilaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko azaroa

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 -01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.  
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1435-X (Obra osoa)  
84-457-1437-6

L.G.: BI-2.689-99

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística